

## 12. Jesus Segurola Urkiola Izadi eta gizaki arteko harremanetan lar



Zumarraga, 1921

Izadiarenganako maitasunak eraginda milaka ordu eman ditu mendian, izadiaren mintzabidea ikasten eta aldi berean euskal hizkuntzaren sustraietara jo du, honen sorrera argitu nahian.

Berrogei urtetik gora dirauen ikerketa luze baten ondotik sortu dira hemen irakurriko dituzunak. 1975 urtean LAR izeneko liburua argitaratu zuen, lan mamitsu honi hasiera emanez. 2001 urtean IZADI ETA GIZAKI ARTEKO HARREMANETAN LAR publikatu zuen, lehen lan hura osatuz eta finkatuz.

Orain, lan honen muina modu errazagoan eskaini nahian, esku artean duzun argitalpen hau prestatu du eta Hauts Urdina etxeak gogo onez bultzatu du asmoa.



IZADI ETA GIZAKI ARTEKO  
HARREMANETAN LAR

esplikatu nahian

[JESUS SEGUROLA URKIOLA]

---

*¿Cómo van a saber a dónde va el euskera si no saben de dónde viene?*

VAHAN SARKISIAN, lingüista y vascólogo armenio  
*El Diario Vasco*, 5 de septiembre de 2005

*“Gu jende gara filologo baino lehen”. - Hau da zure ahotik inoiz entzun nuen arrazoirik ederrenetakoa.*

IÑAKI SEGUROLA, filologoa  
Zorionak Zerura (Koldo Mitxelenari gutuna)  
*Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, ALBERDANIA, 2005

*“Jendeak beldurra dauka euskera izaditik datorrela esateko, izadia eta gizakiaren arteko harremanetik sortu dela esateko”*

JESUS SEGUROLA, ikertzailea

---

Hizkuntza egina dago.  
Ez dago egin beharrik.  
Jaiotzen garenean ez dugu hizkuntza asmatzen hasi beharrik  
Nahikoa dugu hizkuntza ikastea  
“Etorri hona” esaten ikasten dugu  
“ama” esaten, “zergatik” esaten.

Eginda dagoen zerbait erabili egiten dugu.  
Ahotan erabiltzen dugu gure aurrekoek  
Eta ingurukoek erakutsitakoa.

---

Hizkuntza egina dago, beraz.  
Baina zeinek egin du?  
Zeinek asmatu ditu hitzak?

Gizakiren batek noski. Edo gizakiren batzuek.  
Aspaldian.  
Baina nola?

---

Hortxe dago koska



Nola asmatu zuten euskera?  
Zein eratan egin zuten gure hizkuntza?  
Burdinola batean egin ote zuten?  
Artisauren batek egin ote zuen bere lantokian?  
Iruleren batek bere irazkian?

---

Eta zein osagairekin?  
Zer gai behar da hitzak egiteko?  
Zer gai behar da IZAR hitza eraikitzeko?

---

Amigo!

---

Ez da hain kontu erraza.

---

Eta erraza ez delako, batzuek ihes egiten diote auziari, euskera beste leku batetik datorrela esanez, beste lurralde batetik datorrela esanez .

---

Izan liteke beste lurralde batetik etortzea,  
Baina horrek berehala beste galdera bat sortuko digu: Eta lurralde hartan nola sortu zen ba?

Konparazio batera, adibide hau jar dezakegu.  
Gure etxean botila bat ardo dago.  
Eta diogu: -Nondik azaldu da?  
-Errioxatik.  
-Eta Errioxara nondik?  
Erantzuna ez da "beste leku batetik" esatea,  
Baizik eta hau:  
Errioxako ardoa  
Mahastitik dator  
Mahats aletik.

---

Bada hizkuntzara, euskerara, etorrira,  
Zein ote da euskeraren mahastia?  
Zein euskal hitzaren (ardoaren) mahats alea?

Euskal hitzaren jatorriaz Jesus Seguiolak  
Hau dio:

Euskera izadi eta gizaki arteko harremanetik sortua da.

Berrito diogu:

Euskera, izadi (natura) eta gizaki (giza-jende) harremanetik sortua da.

---



Hona hemen Jesus Seguroiak hitzez hitz ematen duen azalpena:

*Euzkara, izadi eta gizaki arteko arremanetatik sortutako izkuntza degularik, euzkararen sustarrak izadiaren adierazpenarekin uztartuta bear dute. Itzak batzutan, naiz izki berdiñekoak izan, sustar ezberdiñekoak, adierazpen ezberdiñekoak izan daitezke. Izadiak gezurrik ez duelarik, berau izango degu euzkarako sustarraren egiztaille.*

---

Orain, azalpen hau entzun ondoren, goazemazue guztiaren hasierara.

---

*Illunpean arkitzen dan izadia, urreratzen ari zaion eguzkiak, bere argi ttantta batez jo du. Mugako lerroan ain zuzen ere. Au degu egun berri baten asiera. Argi tanta bat. Asiera ontan jarraituz, eguzkia aurreratu ala, egun sentiaren argitasunak, edertasuna dario. An ikus mendi mugaz gain eguzkiaren argi izpiak. Zabaldu du eguna. Argi zoragarri batez zabaldu ere. Ara non lur gañean gizakia azaldu; soñiez eta jakintzaz gorri azaldu ba da ere, adimenez argi jabe da.*

---

Soinez eta jakintzaz gorri.  
Adimenez argi jabe da.

---

*Eguerdiko eguzkiari aurrez aurre begiratzea arriskutsua zaigu. Bere iz edo iztara indartsu batez, begiek malkoz bustiz gañera, itxutu egin gaitezke. Egizkiak sortzen duen iz indartsu au sustar bat da. Ortaz, iz sortzen duela, bere izena egizki bear luke, egizki da. Egizkiak daraman eg bigarren sustarra, aurreraxo azalduko degu.*

---

Iz indartsu hau sustar bat da

---

*Egaztieki egaz dirala sortzen duten eg otsa, belarriz jasotzen degun sustarra da. Garrantzi aundiko sustarra. Sustar onen kimuak oso zabalduta daude.*

---

Eg garrantzi haundiko sustarra da.

---

Egizki (eguzki)

*Egizkiak sustar bi daramazki, egaztiengandik jasotako eg sustarra, eta egizki berak sortutako iz sustarra. Egizkiak daraman eg sustarra, azaltzen duen egaldiarengandik jasotakoa da. Gure begietara egaz azaltzen bait da. Eg eta iz sustarrak elkaturik, egiz osatzen dute. Eta egiz itzak, ki atzizki daramala, egizki. Ki atzizki onek, egizkiaren berezitasuna eg eta iz dirala adierazten digu. Gaur egizki bear luken izena, eguzki itzaz darabilgu.*

---

Egi

*Egi itza, egiz sustarraren kimu da. Egi itz onek, egizkiak sortzen duen argia du sorburu. Bereaz, egiak argia du. Egi argia da. Era berean argia egi da. Euzkarak, egizkiaren argitan oiñarritzen dan egi jaso du.*

---



Egia degu buru jabetzara eramango gaituen argia.

---

Egia dugu buru jabetzara eramango gaituen argia.

---

Begiz

*Begiz itzak ere, egizkiarengandik jasotako egiz sustarra, osorik darama. Begiz sustarraren egitea, ikustea da. Begiz sustarrak, beean adierazten duen b aurrizki daramala, egizkiak goien sortzen duen argia, beean jasotzen du. Iñork, ezerk ez bezala jaso ere.*

Begi

*Begiz, ikusteko egintza adierazten digula, begi, ikus al izateko, sortutako atala degu. Begiak, egizkiarengandik jasotzen duen argiz, du bizia. Begia egizkiaren argiz osatzen dala, egizkia mugapean sartzen danean, izkututzen danean, begia argirik gabe, illunpean uzten du. Hurrengo egun sentirarte, agian. Argirik gabe, begiaren eginkisunak amaitzen dira. Egizkiaren argia, gizakik begiaren bidez jasotzen du. Adimenaren bidez, egizkiaren egia. Begiek, soiña argitan jartzen digute. Egiak, adimena.*

---

ATSEDENA

.....

Haize pixka bat hartuz

---

*Aizeak indartsu jotzen duenean ez degu bera ikusten, baiñan bai alditan egiten ditun txikizio eta kalteak. Iñoiz ikaragarritzko ondamenak ere. Aizearen bultzada naiz ikusi ez, iñoiz aurrera egin eziña gerta izan zaigu. Izadian sortzen duen zz... otsa entzun, garbi entzuten da. Aizearen zz...ontatik, zirkintza adierazten digun sustarra jasotzen degu. Zz...*

---

Haizearen zz... honetatik, mugimendua adierazten digun sustarra jasotzen dugu.

---

BUKATU DA ATSEDENA

Ur, lur, tantan, euri, elur, gau, gaur, egun

---

U

*Errekako ura goitik beera indartsu danean, aitz eta arri artean, uu edo ulu gogor jotzen du. Uraren uuu... nabarmena da. Ibai ertzean bizi geranok, uraldearen berri noiz beinka izan oi degu. Illun abarra zan euri eraso sortu zanean. Errekako uraren joera bare zijoa. Gaueko lenen orduak euripean*



*beste gabe eman genituen. Eta orra eguna zabaldu aurretik ibiaren uuu...edo ulua entzunda, nereko: gau euritsua gaurkoa, alako uraldea sortzeko.  
Urak sortzen duen uuu ontatik jasotzen degu u sustarra.  
Uraren u sustar oneri, r sustarra ezartzen ba diogu, r sustar hau, au izkia jabetzen da.  
Uraren u sustarraz jabetuz, ur.  
Ur itzaren adierazpena, uraren uuutaz r sustarra jabetzen da.*

---

Ur hitzaren adierazpena, uraren uuutaz r sustarra jabetzea da.  
Ur = U-dun

---

#### Lur

*Iru sustarreko itza degu lur. Itz onen bigarren eta irugarren sustarrak ur ematen digute.  
Eta I irugarren sustarra aurrizki arkitzen dalako, ur itzara zuzentzen da, lur itza sortuaz.  
L sustar au uretara zuzentzen da; ur sustarrera.  
Ondoren ikusi dezagun lurraren egikera izadian. Euri eraso gogor batek luzatzen ba du, lurra aseaz bigundu eta etenda, uretarako zuzenbidea darama, erreka ibaiak lokazten dituela.  
Beraz egintza ortaz, euzkararen lur itza izadiarekin bat dator.*

#### Elur

*Lur eta elur izadian ain ezberdiñak izanik, euren joera izadian berdiñak dira. Elur itzak, lur itzak azaltzen duen e izkia darama; me sustarretik jasotako e izkia.  
Itz auek daramazkiten lur sustarrak, sorburu berdiñekoak diran ala ez jakiteko, izadiaren adierazpenera joko degu.  
Lur izenaren adierazpena eta izadiaren jokaera bat datozela ikusi dugu. Ea elurraren adierazpena aztertuz zer azaltzen digun. Ikusi dezagun elurraren jokaera izadian.  
Elurra epeltzen djoala, astiro, poliki poliki ur biurtzen da, elur itzaren I sustarra uretara zuzendu da. Beraz izadian lurrak eta elurrak uretarako zuzenbidea daramate.  
Lur eta elur egintza ontan adierazte berdiña dutelarik, euzkararen adierazteaz bat datoz.*

Izadian lurrak eta elurrak uretarako zuzenbidea daramate.

---

#### Euri

*Euri izena aitaterakoan, eu eta ri esanaz, ur itza banandu egiten degu; horrela euri izenaren ur sustarra ainbat illuntzen zaigula.  
Euri itzaren ur sustarrari, e izkia bere xeetasuna adieraziz, aurrizki zaio; euria ttantta xee sortzen da.  
Euri itzak daraman i atzizki sustarrak, ttantta ugarikoa dala azaltzen digu. Euri eraso ttantta ugarikoa izaten da, ugaririk bada.*

---

Euri eraso ttantta ugarikoa izaten da, ugaririk bada.



## Tan tan

*Mendiko ibillaldietan euri erasoagandik babestu nairik, zuaitzpean maiz sartu izan gera.  
Euriak ostoa ase ondoren, goitik beerako ur tantak asten diranean, euriterako estalpe  
eskaxa jartzen da.*

*Baso bideetan sortzen diran ur zuloetan euri tantak erortzen dirala, tan tan otsa sortuaz,  
urarekin bat egiñaz bertan murgiltzen dira.*

*Urak tan tan jotze ontatik, tan tan sustarra jasotzen da.*

*Tan tan sustar au, itz edo izen batek atzizkitzak jasotzen ba du, bertan murgiltzen zaio.  
Adibidez: euritan, erbitan, basoetan, uretan.*

*Naiz tan tan sustarretik n atzizkia soillik jasp, berdin murgiltzen zaio: Mendin, itxason,  
leion.*

Urak tan tan jotze honetatik, tan tan sustarra jasotzen da.

---

## Gau

*Gaueko illunpean egaz egiten ez bada ere, gauaren sustarrak, ega eta u sustarretik  
jasotakoak dira. Gauaren igarotzeak ega sustarra ematen digu. U sustarraren esan naia  
aurreraxo azalduta dago. Uraren ulua entzuten dala, baiñan ez ikusi.  
Gau, illunpean igarotzen dijoan aldia degu. Gau itzak, e aurrizkia baztertuta du.*

---

Gau hitzak e aurrizkia baztertuta du.

---

## Gaur

*Gau itzari r sustarra erantsi zaiola, gauaren jabe dala adierazten digu. Eta nola  
jabetasun ori azaldu! Gaurko argiaz noski. Argia degu gauaren jabe.*

---

Gauaren jabe dela adierazten digu.

---

## Egun

*Egun itzak iru sustar daramazki. Eguzkiarengandik jasotako sustar bi, eta tan sustarretik  
jasotako irugarrena.  
Eguzkiaren eguz sustarretik egu jasotzen da, tan-tanetik n sustarra. Izatez egi itza bear  
luke, eguzkiaren u izkia, i dalako.  
Eguzkiko z izkiaren tokian, n izkia sartzen da, egunaren argitan murgiltzeko N sustar  
onek, egunaren argitan murgiltzen gaitu.*

---

## Eg-u-n

Eguzkiaren eguz sustarretik egu jasotzen da, tan-tanetik n sustarra.



ATSEDENA  
LOTARA

O

*O, loaren sustarra degu. O sustarra, ondoren ezartzen zaizkion izki laguntzalle bide, oso zabaldua dago.*

O loaren sustarra dugu.

---

Oa

*Oa itzaren a atzikiak itz onetan, o sustarraren toki, leku edo txokoa adierazten du. Gaur geienbat a izki au, e izkiaz trukatuta, oe izenaz erabiltzen da. Oek ere ez dira aldi artakoen antzeko, bazter batean orbel eta garoz antolatutako etzan lekuak, alegia. Oa etzan leku eta aditzaren oñarri ere bada.*

---

Lo

*Loaren sustarra o izanik, I sustarra o itz onetara zuzentzen da berarekin bat egiñaz. Loa adierazteko lo itza darabilgu.*

---

I sustarra o hitz honetara zuzentzen da berarekin bat eginez

Lotu

*Lotu itza lo sustarretik jaso da. Tu atziki daramala, lo sustarraren adierazteari jarraituz, lotuta inoragabe geldi eusten du. Lo edo egonean.*

---

Lotu hitza lo sustarretik jaso da.

---

On

*O loaren sustarrari dagozkion berezitasunetan n sustarra murgiltzen zaiola, on itza sortzen dute. On itz onen berezitasunak ugari diralarik, atziki laguntzalle bidez adierazten ditu.*

*Atsedenerako loa bearrezkoa zaigula, bere ondorengoak onak zaizkigu.*

Atsedenerako loa beharrezkoa zaigula, bere ondorengoak onak zaizkigu.

---

ESNATU

---





Uts, uste , auts

Uts

*Eza adierazteko, uts sustarra maiz erabiltzen da. Uts sustar onek, zeinbat itz laguntzallearen bidez, ainbat egintza azaltzen dizkigu.*

---

Eza adierazteko huts sustarra maiz erabiltzen da.

---

Uste

*Uste itza utsean oiñarritzen dala, egiztatzen ez dan artean, utsean gelditzen da.*

---

Auts

*Auts itzak sustar bi ditu. Gauza adierazten duen a sustarra bat, uts adierazten digun sustarra bestea. Autsa, putz egiñez edo aizeak jota, ezmendatzen dan gauza degu.*

A e i o u  
E i o u a  
l o u a e  
O u a e i  
U a e i o

Sekretua:

A=gauza  
E=xehetasuna edo biguin  
l=ugaritasuna  
O=loaren sustarra  
U=uraren hotsa

---

Atzo

Atzo, atzo, atzo, atzo, atzo, atzo  
Atz, atz, atz, atz, atz, atz  
Lo, lo, lo, lo, lo, lo, lo

*Atzo itzaren sustarrak bi dira; atz sustarra, igaro dan eguna atzean utsi duena, eta o loaren sustarra, atzoko eguna oroimenerako lotan utsi duena. Igarotako egunak oroipengarriak dirala, atsegiñak izaten zaizkigu.*

---

Zer da LAR?

[Ardien eragina hizkuntzaren sorreran]

Azter dezagun letra bakoitza: A, L, R

A

*A aotsa, euzkararen sustarra da. Esan nai zabalekoa.*



Gizakia izadiarekin elkartuta dagoela, berarekin ditun arremanak estuak dira, eta elkar arteko lotura ontatik, izadiak azaltzen dizkion sustarrak jasotzeko, gizakia gertu zegoela, euzkarak azaltzen digu.

L

Ardiek larrean ari direla, senak eraginda belar biguiñagoaren billa, larratuz aurrera jotzen dute. Aurrera egite ontatik, alde itzaren adierazpena jaso da. Ardiek asieran zeuden alderditik alde egitea.

Ardiareen alde egintzatik, al egite ontatik jasotzen dan sustarra, l izkia da. Sustar au izki baten aurretik arkitzen bada, onengana zuzentzen da. Eta atzetik arkitzen bada, au ondoren daramala alden du. L sustar honek, zenbait adierazpen edonora daramazki, beste zenbait edonora gabe usten ditu. Norabidez egintza duen sustarra da.

R

Udazken aroan ariztik ezkurra eta gaztañadiko gaztain alea eldu ondoren, ez du aizearen astindu bear aundirik lurreratzeko. Eltzen danean, beste gabe bera dator. Jaki au, artaldeari gogoko zaion jakia da. Raunka raunka alea txikitzen, ez dute bada ezpadako ortz karrazka jotzen. Bizi al izateko ezik, lepondoa sendotzeko ere jaki indartsua dute.

Alea xeatuz sortzen duten ortz karrazka ontatik jasotzen da r sustarra, gaiaz jabetzen dan sustarra.

---

A ahotsa, euzkararen sustarra da.

Ardiaren alde egintzatik, al egite honetatik jasotzen den sustarra, l izkia da.

Alea xeatuz sortzen duten ortz karrazka honetatik jasotzen da r sustarra, gaiaz jabetzen dan sustarra.

---

LAR

Idazlan onetarako azaldu degun idazburua, LAR da. Aztertu dezagun. Egintza duen L sustarra, lan onetan euzkara adierazten digun A sustarrera zuzentzen da, eta jabetasuna adierazten duen R sustarraren bidez, A euzkaragaz jabetu. LAR.

Gogora dezagun orain artekoa

a = gauza, gaia  
e = xehetasuna / biguntasuna  
i = ugaritasuna  
o = loaren sustarra  
u = uraren hotsa  
  
r = -dun (-ren jabea)  
n = -tan murgildutakoa (-ren baitan dagoena)  
al = a-tik urruntzen dena  
la = a-rantz doana

Zer moduz lagun? Zerbait argitu al dugu?

Ez larritu lehen irakurraldian dena ulertzen ez baduzu. Egileak, irakurri duzuna ateratzeko, berrogei urteko ikerketa egin du, eta ez harritu beraz, zuk, irakurri, hausnartu eta ulertzeko, hilabete bat edo beste behar baldin badituzu.



Jarri zuk ere arreta izadiari  
eta geroz eta garbiago ikusiko duzu.

---

Mendi ko haizeari aditu eta egizkia nola irteten den zenbait aldiz ikusi eta gero

Prest egon zintezke

Honako liburu hau

Irakurtzeko:

IZADI ETA GIZAKI ARTEKO ARREMANETAN LAR  
(Jesus Segurola Urkiola, 2001)

Agur, eta eskerrik asko.

Eta ez ahaztu

*Egia dugu buru jabetzara eramango gaituen argia.*

---

